



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko azaroaren 25a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala ematekoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, irakasleen autoritate publikoari buruzkoa. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztu du (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, euskarazko komunikabideen gaineko politikari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin dezan erraustegiek osasunean duten eraginari buruzko azterlan erreal bat. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutua premiatzen da gurasoekin indarkeria erabiltzen duten seme-alaben kasuez ardura dadin. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren baliabideak eman diezazkien euskarazko hedabideei. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur arloko mezenasgoari buruzko lege bat presta dezan. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie biktima guztiei eta bere arbuio osoa adierazten baitu emakumeen kontrako indarkeria-mota ororen aurrean. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Circuito de Los Arcos” sozietatearen akzioen erosketari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (16. or.).

- Galdera, Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroaren koordinatzaile kargua sortu izanari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (17. or.).
- Galdera, eraikin historiko-artistikoak zaharberritzeko eta babesteko inbertsioari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarraren bilkuretarako joateagatik kobraturiko ordain-sarien tratamendu fiskalari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Lergako lurzati-berrantolamenduan egiten ari diren obretarako materialaz hornitzeko harrobiei buruzkoa, José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez Esako arrain-haztegian duen partaidetzari buruzkoa, Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egin (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala ematekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala emateko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala emateko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala emateko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Bidegabekeria bat aitortu eta biktimak babestek botere publikoen lehentasunezko helburu bat izan behar du zuzenbide estatu batean. Hori dela eta, berebiziko garrantzia dauka eragindako kaltea konpontzeak, babesgabetasun egoera aitortzeak eta eskuera dauden bitarteko guztiak jartzeak

egindako kaltea konpontzeko, aitortzeko, gogoratzeko eta lehengoratzeko.

Nafarroan, frankismoaren biktimek babesgabetasun efektiboa pairatu zuten 2003ko martxoaren 10era arte. Egun hartan, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak eta Alargunen Herria Elkarteak izandako ekimenez, adierazpen bat onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak, "1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala ematekoa." Adierazpen hori mugarri bat izan zen 1936ko estatu kolpe militarren biktimen aitortzerako, baina, batez ere, erakundeen lehenengo ahalegina izan zen frankismoaren biktimek egia, ordaina eta justizia izateko daukaten eskubidea aitortzeko eta azpimarratzeko.

Nafarroan, gogorarazi beharra dago, ez zen gerra zibilik izan, ez zen guda-trintxeretan aurre jarritako bandorik egon. Nafarroako Foru Komunitatean, ezberdin pentsatze hutsarengatik, 3.260 pertsona erail zituzten, eta foru lege honen xedea da kalte horrengatik ordaina ematea, ahal den neurrian, eta ahanztura instituzionaleko urteak zuzentzea.

Kontuan hartu beharra dago gerra zibil guztiak desoreka bat eragiten dutela oroimenean, zeren eta irabazleek beren ikurrak, estandarteak eta legeak inposatzen baitizkiete galtzaileei. Halere, urte batzuen buruan, gizarte gehienetan, adiskidetzeta, hurbilketa gertatzen da, eta oroimenaren desoreka berandu baino lehen desagertzen da. Alabaina, Espainian, gerra zibilaren ondoren, diktadura luzea etorri zen, eta, horrenbestez, desoreka izugarria gertatu zen irabazleen eta galtzaileen oroimenaren artean.

Gertatutakoaren bertsio ofizial bakarra 1939. urtean ezarritako erregimenak sortutakoa eta Espainiako gizarteari helarazitakoa izan zen. Amnesty International-ek 2005eko uztailaren 18ko txostenean zioen bezala, "erregimen frankista

amaiturik, krimen horiek ez ziren inpartzialtasunez argitu, eta ordainik jaso gabeko biktimen eskubideak ere ez ziren aintzat hartuak izan”.

Erailetaz gainera, eraildakoen senideek amai-gabeko lazeriak pairatu behar izan zituzten. Diktadura batek berezko dituen beheramenduei, senideen desagerpena gehitu behar izan zitzaion. Eta horixe da, hain zuzen ere, foru lege honen helburu eta oinarri nagusietako bat: ahal den guztian oztopatzea garai hartan exekutatutako pertsonen desagerpenak iraun dezan. Nafarroa bezalako erkidego batek ezin du gogoan hartu gabe utzi arazo humanitario hori. Hori dela eta, babes- eta bilaketa-neurriak garatzen dira foru lege honetan desagertutako pertsona horiek aurkitzeko.

Nafarroako memoria historikoaren berreskurapena, zeina, azken batez, memoria kolektiboaren berreskurapena baita, 70eko hamarkadan hasi zen eta haren helburuetako bat amaitu zen Sartagudako Oroimenaren Parkea inauguratzearekin. Urte hauetan, 2003ko martxoaren 10ean onetsitako adierazpen historiko eta hunkigarriak aitortzen duen moduan, “Franco diktadorearen heriotzaren ondoren, maiz hildakoen ahaideek eta lagunek atera zituzten hilotzak ezpondetatik, soroetatik edo paretetatik. Dena eguargiz egin zuten, hurbilengana maitasunez eta duintasunez, baina aitorten ofizialik gabe.”

Hori dela eta, azpimarratu beharra dago ezen, Nafarroako fusilatuen senideak bildu dituzten elkarteek hildakoen gorpuak bilatzeko eta aurkitzeko lanak egin dituztenean, azken urteetan laguntza ofizialarekin, ez diotela konponbidea eman arazo partikular bati, arazo kolektibo bati egin baitiote aurre, gizarte osoaren arazo bati, gure imaginario kolektiboaren eta gure memoria demokratikoaren arazo bati. Azken batean, elkarte horiek, jada 70eko hamarkadatik, erakunde publikoek aurre egin beharreko eginbehar bat bete dute haien ordez.

Horri dagokionez, Nazio Batuen 47/133 Ebazpenak (1992ko abenduaren 18ko Batzar Nagusiak hartutakoa) Pertsona Guztiak Desagerpen Behartuen aurka Babesteari buruzko Adierazpena onetsi zuen, eta adierazi zuen desagerpen behartuak zuzenbidearen nagusitasuna errespetatzen duen gizarte osoaren balio sakonenak ukitzen dituztela, eta haien praktika sistematikoa gizateriaren aurkako krimena dela. Ebazpena, desagerpen behartuen prebentzioa eta deuseztatzea jasotzeaz gainera, bidezko ikerketetara ere zabaltzen da, hain zuzen ere desagerpena gertatu zenetik igarotako denbora kontuan hartu gabe desagertutako pertsonen ezagupena eduki bezain laster abiatu beharreko ikerketetara.

Foru lege honek erantzuten dio diktadura frankistaren biktimak babesteko betebeharrak humanitarioari, baina, horretaz gainera, honakoei ere errepartzeko die: arestian adierazi dugun eta 2003ko martxoaren 10ean onetsi zen “36ko gerraren ondorioz fusilatutako herritar nafarrak omentzearen eta haiei dagokien ordain morala ematearen aldeko adierazpenari”; Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legean zehaztutakoari; eta Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarrek 2006ko martxoaren 17an Parisen adierazitakoari –izan ere, Espainian 1936tik 1975era bitarte giza eskubideen aurka egindako bortxaketa larriak salatu zituen–.

Foru lege honek, I. titulu osoan, hilobien eta desagerpenen fenomeno konplexuari ekiteko babes-esparrua, prozedura eta tresna egokiak ezartzen ditu.

Horretarako, hilobi-mapa bat egiteko beharra zehazten da. Hori, izan ere, ezinbesteko ekintza bat da, zeren eta ez baitago datu fidagarririk ez desagertuen kopuruari buruz, ez eta Nafarroako lurraldean dauden hilobi motei buruz ere.

Gainera, Nafarroan hilobi-mapa bat egitearen helburuetako bat da gizarteari errealitate hori eza-gutxera ematea eta egia argitzen laguntzea. Horretarako, behar diren tresnak ezarri beharko dira hilobiratze klandestinoak dituzten tokiak babestera eta zaintzera bideratuak, espoliazioa, istripuak edo bestelako gertakariak saiheste aldera.

Elementu berezi gisa, garrantzitsua da, gainera, bi fenomeno bereziri alderdi normatibotik ekitea: Alfontso XII.aren Gotorlekua edo Ezkabako Gotorlekua egotea eta frankismoaren esklaboen lan-eremuak, bi arlo horietan aurrera eramandako errepresioaren tamainarengatik ez ezik, familia askorentzat gotorlekuak eta espetxeratze-eremuek dauzkaten inplikazioengatik ere.

Bidezkoa da, halaber, Nafarroako Parlamentuaren 2003ko martxoaren 10eko adierazpenean jaso zen bezala, “Nafarroako erakundeek baliabideak jartzea askatasunaren aurkako elementu simbolikoak, denok gainditu nahi dugun iragan horren adierazle ere direnak, desagerrarazteko”. Horri dagokionez, berretsi eta osatu beharra dago Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeko xedapen iragankor bakarrak eta Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legeko 15. artikulua ezarritakoa, zeren eta urteak igaro diren arren,

oraindik ere kendu beharko liratekeen sinbolo batzuk bai baitaude, bikimentzat eta gizarte demokratikoaren balioentzat laidogarri izateagatik.

Foru lege honek, azkenik, ulertzen du memoria historikoaren berreskuratzea ahalegin gisa, desagertutako pertsonen gorpuzkinak berreskuratzeko eta, azken batez, diktadura frankista sozialki eta instituzionalki legitimaziorik gabe uzteko; eta horrez gain, estatu-kolpe frankistaren biktima izan ziren pertsonen aitorten publiko eta errehabilitazio moralerako ahalegin normatibo gisa.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea

1. Foru lege honen xedea da 1936ko uztailaren 18tik aurrera izan zen kolpe militarren ondorioz Nafarroan erail zituzten pertsonen memoria historikoa berreskuratzea, eraildako pertsonen memoria aitortuz eta onduz eta haien gorpuzkinak aurkituz, bai eta, kasua bada, gorpuzkin horiek hobietatik atereaz ere.

2. Halaber, foru lege honek erraztasunak eman nahi ditu Nafarroan garai horretan gertatutakoak ezagut daitezkeen.

2. artikulua. Neurriak

1. Honakoak izanen dira erkidegoko Administrazioak 1. artikuluan adierazitako helburuak betetzeko aurrera eramane beharreko neurriak:

a) Hobi-ateratzeetarako protokoloa onetsi eta hilobi-mapa bat egin dadin.

b) Zuzenean jardutea desagertutako pertsonen gorpuzkinak berreskuratzeko.

c) Lurperatze tokiak zaintzea eta babestea.

d) Egon litezkeen aipamen eta sinbolo frankistak kentzea.

e) Hitzarmenak eta bestelako tresnak garatzea Nafarroan diktadura frankistan zehar gertatutakoak aztertze eta ezagutzeko.

f) Frankismoaren biktimak gogoratzeko dauden monumentuak babestea, eta pertsona horiek aintzatesteko adierazpen eta aipamenak bultzatzea.

2. Aurreko idatz-zatian zehaztutako jarduketak udalekin, senideen elkarteekin eta entitate akademikoekin batera lan eginez eramane dira aurrera.

3. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan foru lege honen helburuak betetzeko behar diren kontusailak ezarriko dira, kasua bada, entitate publiko eta pribatuentzako behar diren diru-laguntzen bitartez.

3. artikulua. Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoa

1. Arloan eskumenak dauzkan departamentuaren menpean, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoa eratuko da. Honako eginkizunak izanen ditu:

a) Elkarte, erakunde akademiko eta entitate publikoen jarduketak koordinatzea, foru lege honetan ezarritakoak zuzen bete daitezkeen.

b) Memoria historikoaren arloko planak egitea, arau-garapenean parte hartzea eta bidezko diren gomendioak onestea.

2. Batzordearen osaera erregelamendu bidez zehaztuko da. Nolanahi ere, honako hauen ordezkariak edukiko ditu: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako administrazio publikoak, fusilatuen senideak ordezkatzeko dituzten elkarteak eta historiaren, auzitegiko medikuntzaren eta arkeologiaren arloekin lotutako entitate akademiko eta profesionalak.

I. TITULUA

Desagertutakoak direla-eta administrazio publikoek dauzkaten betebeharrak

4. artikulua. Hilobi-mapa

1. Gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzeari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legeko 12.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, foru erkidegoko Administrazioak Nafarroako hilobi komunaren mapa egingen du.

2. Lan horretan honakoak jaso beharko dira: plaken, monolitoen nahiz bestelako sinbologiaren bitartez identifikatutako hilobiratzeak eta oraindik ere identifikatu gabe daudenak; nahita edo nahi gabe hobi-ateratzeak gertatu direneko tokiak; eta oraindik ere deskubritzeko daudenak.

3. Horren emaitza den lanarekin, lurraldeko hobien inbentario bat egingen da, hobi-ateratzeak egiteko nahiz toki horiei babesa edo duintasuna emateko bidezko diren neurriak ahalbidetze alderara.

4. Hilobi-mapa hori publikoa izanen da, eta interesa duten pertsona eta entitate guztiek eskuratu ahalko dute.

5. artikulua. Hobi-ateratzeetarako protokoloa

1. Nafarroako Gobernuak, Justizia Ministerioarekin lankidetzan, diktadura frankistaren biktimen hobi-ateratzeei buruzko jarduketa-protokolo bat onetsiko du, irailaren 26ko PRE/2568/2011 Agindu-

aren xedapenak egokituz. Agindu horren bitartez, argitara ematen da Ministroen Kontseiluaren 2011ko irailaren 23ko Erabakia, zeinak agintzen baitu Gerra zibilaren eta diktaduraren biktimen hobi-ateratzeetarako jarduketa protokoloa Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

2. Nafarroako administrazio publikoek, protokolo horretan ezarrita dagoenaren arabera, hilobiak aurkitzeko eta hobi-ateratzeak egiteko prozedurari hasiera emateko akzio publikoa aitortzen da. Gorpuzkinak aurkitu eta haiek hobietatik atera eta lekualdatzeko gastuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordainduko dira.

6. artikulua. Memoriaren tokiak

1. "Nafarroako Memoria Historikoaren Tokia" figura ezartzen da.

2. Halako toki deklaratu ahalko dira altxamendu militarrean, gerra zibilean zehar eta diktadura frankistan zehar izandako gertakari bereziki garrantzitsuei lotuta dauden tokiak. Deklarazioa egitea Nafarroako Gobernuari dagokio, foru lege honetako 3. artikuluan araututako batzordeak proposamen loteslea eginda. Deklarazioa Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Katalogoan inskribatuko da.

3. Memoria historikoaren toki deklaratutako ondasunen titularrak diren administrazio publikoek ziurtatu beharko dute haien iraunkortasuna, identifikazioa eta seinalizazio egokia.

4. Toki horien titularrak pribatuak direnean, helburu horiek erdiesteko ahaleginak eginen dira, memoria historikoaren arloko departamentu eskudunaren eta pertsona nahiz entitate titularren arteko akordioen bitartez.

II. TITULUA

Administrazio publikoen eta entitate pribatuen betebeharrak sinbolo eta aipamen frankistak erretiratzeari dagokionez

7. artikulua. Sinbolo eta aipamen frankisten errolda

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak sinbolo, lelo edo aipamen frankistei buruzko errolda bat eginen du, eta Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dio.

8. artikulua. Sinbolo, lelo eta aipamen frankistak kentzea

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenez baliatuz, behar diren neurriak hartuko ditu altxamendu militarra, gerra zibila eta diktadurako errepresioa pertsonalki nahiz kolektiboki goratzeko armarriak, intsigniak, plakak eta gainerako objektu edo aipa-

menak kentzeko. Neurri horien artean, diru-laguntzak edo laguntza publikoak kentzea ere sartu ahalko da.

III. TITULUA

Diktadura frankistan zehar Nafarroan izandako gertakarien ikerketa eta ezagupena

9. artikulua. Nafarroako Memoria Historikoaren Agiritegia

1. Nafarroako Gobernuak, departamentu eskudunaren bitartez, Nafarroako Memoria Historikoaren Agiritegia sortuko du.

2. Agiritegia sortzeko, Nafarroako Gobernuak lankidetzat sustatuko du arloarekin lotura duten artxibo administratibo, erlijioso, militar edo partikularrak dauzkaten erakunde publiko eta pribatuekin.

10. artikulua. Hezkuntza eremua

1. Hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak ikasliburuak aztertuko ditu, ziurtatze aldera haietan informazio egiazko, zabal eta zorrotza ematen dela gerra zibilean eta frankismoan Nafarroan gertatutakoei buruz.

2. Nafarroako Gobernuak urteroko Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Heziketa Programan behar diren jarduketak sartuko ditu, foru lege honen helburuak betetzeko.

IV. TITULUA

Oroimenezko monumentu, parke eta elementuak babestea eta mantentzea

11. artikulua. Memoriaren Parkea

1. Sartagudako Memoriaren Parkeak dagoen aintzatespen eta babes ofizial handiena izanen du.

2. Memoriaren Parkea mantentzeko eta hobetzeko gastuak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ordainduko dira.

12. artikulua. Alfontso XII.aren Gotorlekuko espetxea

1. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu Alfontso XII.aren Gotorlekua edo Ezkabako Gotorlekua memoria historikoaren toki gisa babesteko, toki horretan gerra zibilean zehar egon zen espetxeari eta hartan gertatutakoei dagokienez.

2. Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek espetxe horretan kartzelararata egon ziren preso- en memoriaren aintzatespen- eta omenaldi-ekitaldi bat eginen dute urtero, orain arte halakoak egiten jardun duten herritarren entitateekin batera lan egingez.

13. artikulua. Frankismoaren esklaboak

Nafarroako Gobernuak frankismoaren esklaboen lanaren bitartez eginiko obra guztiak seinalatuko ditu. Seinale horiek honakoak jasoko dituzte: pertsona horien bizi-baldintzak, esklaboen kopurua eta egitate horiek publikoki ezagutzera emateko garrantzitsuak izan daitezkeen datu guztiak.

14. artikulua. Aitorpen publikoak

1. Berariaz aitortzen da foru lege honetan jasotako indarkeriaren biktimen duintasunaren alde nabarmendu diren elkarte, fundazio, entitate akademiko eta erakundeek eginiko lana.

2. Nafarroako Gobernuak behar diren aitorpen publikoko ekitaldiak sustatuko ditu gerra zibilean eta frankismoan eraildako pertsonen memoria ontzeko.

3. Nafarroako Gobernuak, toki entitateekin batera, bultzatuko du plaka, monolito edo aipamen berariazkoen bitartez 1936ko uztailaren 18ko

kolpe militarrean eraildako kargu publiko edo funtzionarioen aitorpen publiko eta iraunkorra.

Xedapen iragankor bakarra. Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikoaren eraketa

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean eratu da 3. artikuluan aipatzen den batzordea.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamendu bidezko garapena

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan. Nolanahi ere, 5. artikuluan araututako protokoloa urtebeteko epean onetsi beharko da, gehienez ere.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, irakasleen autoritate publikoari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztu du irakasleen autoritate publikoari buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea irakasleen autoritate publikoari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Irakasleen Autoritate Publikoari buruzko Foru Lege proposamena

ATARIKOA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 104.1 artikuluan ezartzen denez, hezkuntza-administrazioak arduratuko dira irakasleek jaso dezaten gizarteak ardurapean ipini dien eginkizunaren gizarte-garrantziagatik merezi duten tratua, begirunea eta errespetua. Artikulu bereko 2. idatz-zatian xedatzen denez, hezkuntza-administrazioek, halaber, lehentasunezko arreta eskainiko diote irakasleen lan-baldintzak hobetzeari eta irakaslanak gizartearen aldetik gero eta begirune eta aitormen handiagoa izatea bultzatzeari.

Nafarroako Gobernuak orain dela urtebete onetsi zuen 47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itundu- etako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa Foru Dekretu hori oso- osoa da ikasleen gaineko gora-

behera guztiei eta ikastetxeetako bizikidetasuna arautzeari dagokienez, baina osatugabea da irakasleei dagokienez, zeintzuei "hezkuntza-autoritate" maila esleitzen baitie. Foru lege honek, hortaz, "autoritate publikoaren" izaera aitortzen die zuzendariari eta zuzendaritzako gainontzeko kideei, eta horrek esan nahi du horiek guztiak izanen dutela, bere txosten eta adierazpenetan, egiazkotasun-presuntzioa, bai eta antolamendu juridikoak aitortutako babesaren ere.

Azken batean, arau honek indartu egin nahi du hezkuntza-sistemaren oinarritzko zutabea: maisu-maistrak eta irakasleak. Kalitatezko hezkuntza-sisteman aurrera eginen bada funtsezkoa da irakasleek gizarte-prestigiosa edukitzea, erakundeek haien lana aitortzea eta legeak haien autoritatea babestea, merezimendua eta ahalegina gailentzea eta bizikidetasunean, errespetuan eta erantzunbeharrean hezteak.

Legeak bi titulu, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Foru lege honek xede du irakaslearen autoritatea aitortzea eta indartzea eta irakasleari bere eginkizunetan eta arduretan zor zaizkion aintzatespena eta errespetua sustatzea, hezkuntza-sistema hobetzeko eta hezkuntzarako eskubidea ziurtatzeko.

2. artikulua. Aplikazio esparrua

Foru lege hau aplikatuko da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzaren bat ematen duten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe behar bezala baimenduetan.

3. artikulua. Printzipio orokorrak

Hona foru lege honen oinarrian dauden printzipio orokorrak:

a) Irakaslana irakaskuntzaren kalitatearen funtsezko faktore gisa hartzea.

b) Irakaslea funtsezko figura gisa hartzea, irakasleak bere gaitasun guztiak, ikasteko gogoia, ahalegin-sena eta espiritu kritikoa osotara gara ditzan.

II. TITULUA

Irakaslearen babes juridikoa

I. KAPITULUA

Irakaslearen babes juridikoa

4. artikulua. Autoritate publikoa.

Zuzendariak eta zuzendaritzako gainontzeko kideak, bai eta irakasleek ere, autoritate publiko izaera izanen dute esleiturik dituzten gobernu-, irakaste- eta diziplina-botereak egikaritzean, eta antolamendu juridikoak izaera horri aitortzen dion babesaren edukiko dute.

5. artikulua. Egiazkotasun-presuntzioa.

Diziplina arloko eskumenak baliatzean, irakasleek nahiz gobernu-organoeetako gainontzeko kideek eta irakasleek egiaztatutako gertakariak egiazkotasun-presuntzioa edukiko dute, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen dituen dokumentu batean idatziz jasotzen direnean.

6. artikulua. Laguntza juridikoa.

Hezkuntza-administrazioak hartu beharreko neurriak hartuko ditu ikastetxe publikoetako irakasleei dagokienez, ziurtatze aldera haien babes eta laguntza juridiko egokia eta bere jardun profesionaletik eta eskola-esparru barruan nahiz handik kanpo betetzen dituzten eginkizunetatik heldu diren gertakarietara erantzukizun zibilaren estaldura.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikaslearen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuak indarrean jarraitzea.

Foru lege honek indarrean mantentzen du Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikaslearen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Indarra hartzea

Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, euskarazko komunikabideen gaineko politikari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkezturiko jabeldura, euskarazko komunikabideen gaineko politikari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarraren Erregela-menduari jarraiki, ondoko jabeldura egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Parlamentari honek Gobernua interpelatu nahi du euskarazko komunikabideen inguruan duen politikari buruz, eta komunikabide hauek mantendu, sustatu eta gehitzeari buruz, Euskarari buruzko 18/1986 Legean jasotzen den III. Tituluan esandakoa betearazteko.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin dezan erraustegiek osasunean duten eraginari buruzko azterlan erreal bat.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin dezan erraustegiek osasunean duten eraginari buruzko azterlan erreal bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2010-2020 aldiko Plan Integratuak ez ditu betetzen hondakinak kudeatzeko hierarkiaren irizpideak, nahiz eta aurreko planarekiko zenbait hobekuntza ezartzen dituen; izan ere, hondakinen erdiak erraustearen alternatiba mantentzen da, eta aukera horretara bideratzen da aurrekontuaren % 90 baino gehiago. Planak orobat proposatzen du, helburu nagusi gisa, erraustegi zentral handi bat paratzea. Izquierda-Ezkerraren ustez, ordea, hori da hondakinak tratatzeko modurik eutsiezina eta arriskutsuena.

Europako Parlamentuaren 2008/98/CE zuzentarauak ezartzen du Murrizketa, Berrerabilera eta Birziklapen irizpideetan oinarritu behar dela hondakinen kudeaketa oro, baldin eta iraungarria, baliabideei begira eraginkorra eta ingurumenarekiko begirunetsua izan nahi badu, eta hierarkia hori errespetatu behar duela. Beste modu batera tratatu ezin diren kantitate txikien kasuan, errausketa eta isurketa dira erabili beharreko azken baliabideak; izan ere, tratamendu hori oso gogorra da, eta pertsonen nahiz ingurumenaren osasuna kaltetu dezake.

Gure ustez, Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2010-2020 aldiko Plana berregin beharra dago, erraustearen aukera ahal den neurrian kentzeko; izan ere, plan hori zalantza handiekin onetsi zen, salbu eta alde zuzenetik erabakita zegoena: erraustea.

Plana berregitean, hondakinen kudeaketa-hierarkia izan beharko litzateke oinarria, eta kontuan eduki beharko lirateke aukerei buruzko konpara-

zio-azterlan berriak eta Europako herrialde aurreratuenen esperientzia. Mankomunitateen nahiz beste entitate interesdun batzuen parte-hartzearekin egin beharko litzateke (osasun arloko profesionalak, ekologisten taldeak, kontsumitzaileen elkarteak, unibertsitateak eta abar). Izan ere, guk uste dugu parte hartzea ez dela soilik herritarren eta adituen proposamenak entzutea, ezpada gehien-go handi batek bere egiten dituen proposamen arrazoituak onartzea ere.

Bestalde, plan berria egiteari begira moratoria baten beharra justifikatzeko, aski lirateke plan horrek jasotzen duen bilketa-ereduaren aldaketa eta materia organikoaren tratamendu- nahiz bilketa-sistemari buruzko proposamenak egin ditzaten mankomunitateei emandako hamabi hilabeteko epea; hartara, mankomunitateen proposamenak aintzat hartu ahalko lirateke, eta ez alderantziz.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egiazko azterlan bat egitera erraustegiak nahiz erraustegiak isurtzen dituen elementuek osasunean eta ingurumenean duten inpaktuari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du moratoria bat ezar dezan Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2010-2020 aldiko Plan Integratuari dagokionez, eta orobat premiatzen du plan berri bat egin dezan, zeinak hala forman nola edukian beteko baititu iraungarritasun-irizpideak eta irizpide demokratikoak, eta hondakinei buruzko Europako zuzentarauak ezartzen duenari jarraikiz murrizketa, berrerabilera eta birziklapena sustatuko baititu.

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutua premiatzen da gurasoekin indarkeria erabiltzen duten seme-alaben kasuez ardura dadin.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutua premiatzen baita gurasoekin indarkeria erabiltzen duten seme-alaben kasuez ardura dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutua premiatzen da gurasoekin indarkeria erabiltzen duten seme-alaben kasuez ardura dadin.

Adingabeen Fiskaltzaren 2010eko oroitidazkian seme-alabek gurasoei egindako erasoen gorakadari buruz ohartarazten da. Nafarroan 65 salaketa erregistratu ziren: 2009ko oroitidazkian baino 20 gehiago eta 2007an aurkeztutakoen bikoitza baino gehiago, urte horretan 30 aurkeztu baitziren. Psikologoek ohartarazten dute halako eraso gehienak etxean gertatzen direla eta asko direla salatzen ez diren kasuak. Adingabeen Fiskaltzak halako 8.000 salaketa jaso ditu Espainia. Adituen arabera, eraso fisikora ailegatu aitzin, gurasoek seme-alaben xantxia, hitzezko erasoak eta kolpeak pairatzen dituzte. Ibilbide horretan ez dute erakunde publikoen laguntza zuzena jasotzen.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak bere baitan hartzen du Nafarroako Berdintasunerako

eta Familiarako Institutua, emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko eta aurrea hartzeko politika publikoak koordinatzeko eta sustatzeko eskumena duen erakundea.

Hori guztia kontuan hartuta, Parlamentu-talde Popularrak Gobernuak premiatzen du honako hauek egitera:

Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua birmoldatzera, zertarako eta Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutua arduratu dadin, genero indarkeriaz gain, seme-alabek gurasoen kontra indarkeria baliatzen duten kasuez, emakumearen kontrako indarkeria kasuetan egiten diren jarduketan gisakoen bidez.

– Parte hartzen duten instantzietako profesionalen sentsibilizazioa eta prestakuntza, hala seme-alabek gurasoen kontra baliatutako indarkeria-ekintzen nola esku hartzeko jarraibide egokiak gaineakoak.

– Jarduketa-protokolo bat egitea, seme-alabek gurasoen kontrako indarkeria baliatzen duten kasuetan jarraitu beharrekoa.

– Profesionalen prestakuntza, seme-alabek gurasoen kontrako indarkeria baliatzen duten kasuetarako.

– Giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak gaitzea, seme-alabek gurasoen kontrako indarkeria baliatzea desagerrarazten laguntzeko.

– Seme-alaben indarkeria pairatzen duten gurasoentzako laguntza eta aholkularitza juridiko espezializatua.

– Herritarrentzako informazioa eta sentsibilizazioa, seme-alaben indarkeria pairatzen duten gurasoek nora jo behar duten jakin dezaten.

– Gizarte Ongizate, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuaren familiako elkarguneak bere zerbitzuen artean jaso ditzan seme-alabek gurasoen kontrako indarkeria baliatzen duten kasuak.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren baliabideak eman diezazkien euskarazko hedabideei.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren baliabideak eman diezazkien euskarazko hedabideei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Idazki hau sinatzen dugun parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dugu, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Euskarari buruzko 18/1986 Legeko III. titulua-
ren izenburua "Komunikabide sozialak" da.

27. artikulua ezarritakoaren arabera, administrazio publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan.

Nafarroan euskara arautzen duen legearekin bat, administrazio publikoak arautu egin behar du euskararen erabilera komunikabide sozialetan.

Lege-hauste bat dagoela esatera ausart gaitzke, ikusirik, esate baterako, eremu euskaldunean euskaraz lan egiten duten komunikabideak, zeinak bederen azken 25 urteotan diruz lagundak izan baitira, bat ere diru-laguntzarik gabe geratu direla 2012rako aurrekontuen proiektuan.

Hori gutxi balitz bezala, une honetan ez dago inolako neurririk, kuotarik edo betebeharririk, komunikabideek euskara inolako proportziotan erabil dezaten. Hartara, urratu egiten da mailaz mailakotasuna, eta euskarazko komunikabideak ez dira lanean ari legeak aipatzen duen laguntza ekonomiko eta materialarekin bat datorren plangintza batekin.

Egoera honek kinka larrian jartzen ditu euskaldunen hizkuntza-eskubideak; izan ere, administrazio publikoak ez dauka inolako araubiderik legeak ezartzen duena betetzeko. Halatan, orain arte bete izan den gutxienekoa ezerezean geratu dela esan dezakegu.

Hizkuntza gutxituaren biziraupenerako ezinbestekoa da komunikabide sozial eraginkorrak abian jartzea, hizkuntza hori agerian gera dadin, ikusezintasunetik plazara, jendartera jauzi egin dezan.

Komunikabide sozialetan euskararen presentziaz ari bagara, ezinbestekoa da, legeak agintzen duena betetze aldera, irratiak, telebista, aldizkariak, egunkariak IKTak behar adina tresnaz hornitzea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 18/1986 Legeko 27. artikuluan ezarritakoa bete eta euskarazko komunikabide sozialak behar adina baliabide ekonomiko eta materialez hornitzera, euskara eskuarki eta mailaz maila erabil dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2009ko otsailean Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Gobernuari egin zion eskaera –komunikabideekin hitzarmena lortzea– bete dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa de Simón Caba-
llero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur arloko mezenasgoari buruzko lege bat presta dezan.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultur arloko mezenasgoari buruzko lege bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko parlamentu-talde popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, kultur arloko mezenasgoari buruzko lege bat prestatzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Administrazioaren diru-sarrerak nabarmen jaitsi dira egungo krisi ekonomikoaren eraginez, eta, ondorioz, jaitsi egin dira entitate publikoen aurrekontuak nahiz zenbait programa eta arlotan jarduteko aukerak.

Kulturarena da kaltetutako arloetako bat. Adibidez, Nafarroako 2012rako aurrekontu orokorren aurreproiektuan jasota dator Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak % 20ko jaitsierarekin ekin beharko diola 2012ko ekitaldiari, batez besteko jaitsiera % 2,95ekoa den arren, Nafarroako Gobernuari oro har dagokionez.

Egoera horrek berekin ekarri du kultur entitateen eta taldeen jarduera finantzazera bideratutako kontusailetan jaitsiera handiak egitea, bai eta Nafarroako zenbait herritako kultur etxeen, antzokien eta kultur azpiegituren funtzionamendu gas-tuak betetzen dituztenetan ere.

Egungo ziurgabetasun ekonomikoa ikusita, aurreikus daiteke hurrengo ekitaldietara luzatuko dela aurrekontu arloko mugen testuinguru hau.

Halatan, finantzaketa-bide berriak ireki beharra dago, kontu publikoetara mugatuko ez direnak eta azpiegitura horien autofinantzaketa erraztuko dutenak.

Mezenasgoak eta babesletzak finantzaketa pribaturako aukera ematen dute gaur egun. Bi figura horien jarduketa-esparrua eta helburua ezberdinak diren arren, bat datoz biak zenbait proiekturi edo jarduerari funts pribatuak emateari dagokionez.

Nafarroan arlo horretan gaur egun aplikatzen den lege-esparrua ondoko bi arauk osatzen dute nagusiki:

1.- Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea.

2.- Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea.

Bi horiek alde batera utzita, gogora ekarri beharra dago Nafarroako 2012rako aurrekontu orokorren aurreproiektua, zeinak jaso eta handitu egiten baititu kirol eta kultur babesletzako ekintzak egiten dituzten enpresentzako onura fiskalak.

Lege-esparru hori aztertuta ondorioztatzen da Nafarroak politika argi eta zehatz bat ezarri behar duela kirol eta kultur babesletzaren esparruan. Alde batetik dugu Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea, zeinak mezenasgoaren kontzeptua jasotzen baitu; ez du, ordea, garatzen.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean, berriz, babesletza hiru aldiz bakarrik aipatzen da: legearen izenburuan, errenta aitortzenari buruzko zazpigarren xedapen gehigarrian eta bederatzigarren xedapen gehigarrian, non alderdi politikoentzako dohaintzak soilik aipatzen baitira.

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren web orriko laguntzen eta diru-laguntzen katalogoan ez dira jasotzen babesletzaren, babestearen ez mezenasgoaren kontzeptuak. Gauzak horrela, muga handia dago gaur egungo onura fiskalak hedatzeari dagokionez.

Hori dela-eta, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berariazko arau bat presta dezan sei hilabeteko epean, berariaz eta modu integralean arautze aldera kultur mezenasgoa nahiz kirol eta kultur babesletza.

Aipatu arauak ezarriko ditu Foru Komunitateko ondare historikoaren gaineko mezenasgoaren bal-

dintzak, bai eta kirol eta kultur jarduerarenak ere. Kultur jardueraren kasuan entitateak, jarduerak eta ikuskizunak jaso beharko ditu, bai eta kultur etxeak, liburutegiak, antzokiak nahiz bestelako kultur azpiegiturak ere.

Iruñean, 2011ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie biktima guztiei eta bere arbuio osoa adierazten baitu emakumeen kontrako indarkeria-mota ororen aurrean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten dizkie biktima guztiei eta bere arbuio osoa adierazten du emakumeen kontrako indarkeria-mota ororen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuak bereziki gogoratu nahi ditu Nafarroan eraildako emakume guztiak, eta haien guztien izenean gogoan du Yanela Zaruma, eraildako azkena izan zena.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra erdietsi beharra dagoela, indarkeria-mota ororen adierazpenak amaïarazi ahal izateko, eta konpromisoa hartzen du elkarrekiko errespetuan oinarritutako berdintasunezko harremanen defentsan lan egiteko.

4. Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio gizarteari azaroaren 25aren kariatara antolatzen diren ekimenetan parte har dezan, eta, zehazki, Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuak deitutako agerraldian, zeina Vínculo plazan eginen baita, egun horretan berean, 12:00etan. Orobat dei egiten dio ezagutzen dituen indarkeria sexistako ekintza guztiak arbuia eta sala ditzan.

5. Nafarroako Parlamentuak elkarretaratzea eginen du Parlamentuaren egoitza aurrean genero-indarkeriaren biktima bat egon den hilabete bakoitzeko azken Osoko Bilkuran, gisa horretako ekintzekiko gaitzespenaren erakusgarri eta gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraiki beharra aldarrikatze aldera.”

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Circuito de Los Arcos” sozietatearen akzioen erosketari buruzkoa.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, “Circuito de Los Arcos” sozietatearen akzioen erosketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak Legebiltzar honen 2011ko azaroa-

ren 10eko Osoko Bilkuran adierazi zuen Nafarroako Gobernuaren Enpresa Korporazioak “Circuito de Los Arcos” sozietatearen % 5 erosi zuela, zeina 2010eko abenduaren 31n Construcciones Samaniegoren jabetzakoa baitzen oraindik.

Diario de Navarrak 2011ko azaroaren 11n argitaratu zuenaren arabera, Nafarroako Gobernuaren Enpresa Korporazioak 1.000.000 € ordaindu zituen akzio-pakete horrengatik.

“Circuito de Los Arcos” sozietatearen 2010eko urteko kontuetan –Construcciones Samaniegok ez zituen sinatu, ez baitzegoen horiekin ados–, zirkuitua eraikitze obrak direla-eta Construcciones Samaniegok sozietatearen aurka jarritako 4.250.000 euroko erreklamazio baten berri eman zen.

Hona galdera:

Aipatutako % 5 hori erostearekin orobat hitzartu al da Construcciones Samaniegok erreklamazio horri uko egitea?

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroaren koordinatzaile kargua sortu izanari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroaren koordinatzaile kargua sortu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuan hartuta Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi duela administrazioaren egitura murrizteak lehentasuna duela, ondokoa jakin nahi dut:

Nola justifikatzen da, Pedro Pegenaute jauna Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroko zuzendari kudeatzaile izendatu ondotik zentro horretako koordinatzaile kargu berria sortu izana?

Iruñean, 2011ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, eraikin historiko-artistikoak zaharberritzeko eta babesteko inbertsioari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, eraikin historiko-artistikoak zaharberritzeko eta babesteko inbertsioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza Garcíak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, eraikin historiko-artistikoak zaharberitze eta babeste aldera Departamentuak egindako inbertsioari buruzko ondoko galderak egiten dizkio Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariari, idatziz erantzun ditzan.

Eliza Katolikoak betidanik herri-ondareztat hartu izan diren eraikinak immatrikulatu izanak eta Gobernu honek titulartasun pribatuko ondarean inbertitzen jarraitzeko asmoak –horra A2110 A20001 7819 337100 kontusaila, 4.286.500 €-koa– eztabaida sortu dute Nafarroako herritarren artean. Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

1. Zein izan da inbertsio erreala 2008an, 2009an, 2010ean eta 2011n Eliza Katolikoak immatrikulatutako erlijio-eraikinetan?

2. Zein da kontzeptu hori bera dela-eta 2012rako aurreikusitako inbertsioa?

Iruñean, 2011ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren bilkuretara joateagatik kobraturiko ordainsarien tratamendu fiskalari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren bilkuretara joateagatik kobraturiko ordainsarien tratamendu fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer tratamendu fiskal ematen zaie Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren bilkuretara joateagatik Nafarroako Gobernuako kideek kobraturiko dietei?

Eta Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorrera joateagatik kobratutako dietei?

Iruñean, 2011ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Lergako lurzati-berrantolamenduan egiten ari diren obretarako materialaz hornitzeko harrobiei buruzkoa.

JOSÉ FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Lergako lurzati-berrantolamenduan egiten ari diren obretarako materialaz hornitzeko harrobiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari J. Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

1. Zer harrobi erabili dira Lergako lurzati-berrantolamenduko obrak materialez hornitzeko? Harrobi horietako bakoitzeko zenbat material erabili da gutxi gorabehera, ehunekotan adierazirik? Harrobi horiek ba al dute Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuaren eta Meategi Atalaren ustiapen-baimenik?

2. Nafarroako Gobernuak baimendu al du partikularren materialen bilketa, Lergako lurzati-berrantolamenduko obretan erabiltzeko? Hala baldin bada, zenbat ordaindu zaie partikularrei bere finketatik ateratako materialengatik? Zer zenbateko ziurtatu zaio obren kontratistari, Lergako udal mugapeko finka partikularretatik ateratako materialari egozten ahal zaionetik?

3. Departamentuak ba al daki ea eraikitzaileen batek edo partikularren batek alta eman duen Lergako Udaleko jarduera ekonomikoen gaineko zergan, harrobi bat ustiatzeko xedez?

Iruñean, 2011ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: J. Fernando Ibiltzieta Olleta

Galdera, Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez Esako arrain-haztegian duen partaidetzari buruzkoa.

FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoen bitartez Esako arrain-haztegian duen partaidetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarro parlamentu-taldeko foru parlamentari J. Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuak ba al dauka partaidentzarik, bere enpresa publikoen bidez, Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.n? Hala baldin bada, partaidentza horren gaineko dokumentazioaren kopia jaso nahi dugu, bai eta Nafarroako Gobernuak edo bere enpresa publikoek lortutako errentagarritasunari buruzko informazioa, Sodena enpresa publikoak arrain-haztegi hori dela-eta egindako kudeaketei buruzko informazioa eta Esako arrain-haztegian une honetan dagoen gaizkata-motari buruzko informazioa ere.

2. Enpresa publikoek zer kabinete juridiko, abokatu eta abarri eskatu dizkiete txostenak nahiz bestelako jarduketak egin ditzaten? Eskatutako lan guztien zerrenda jaso nahi dugu, eta lan horiek eskatu zaizkien profesionali buruzko zehaztapenak ere (horietako bakoitzak azken hiru urteotan egindako lanaren laburpen bat eta jasotako dirukopuru zehatza).

4. Nafarroako Gobernuak ba al du gaizkatahazkuntza dela-eta Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L. Esan jarduera irregularrak egiten aritzearen berri?

5. Sodenaren Administrazio Kontseiluren batean aztertu al da Piscifactoría de Sierra Nevada, S.L.n egindako inbertsioaren egoera? Hartutako erabakien kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2011ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: J. Fernando Ibiltzieta Olleta